# BIZITEGI ERAIKINA — OKENDO 4

**D MAILA**



**Egilea eta data: Eleuterio de Escoriaza; 1865**

**Deskribapena**

Mehelin arteko eraikina, behe oina, jatorrizko lau goi oin (printzipioz, 4.a zertxobait atzeraemanda zegoen eta aurreratu egin zen jasodurak eraikitzean) eta 1942ko bi jasodura dituena (lehenengoa fatxada planoan eta bigarrena atzeraemana). Fatxada oso eraldatua behe oinean (1951) eta harriz estalia hormigoizko begiratokiek (horiek ere 1942koak) libre utzitako goi oinetako horma ataletan.

**Babes erregimena**

1. Erregimen orokorra.
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak (4., 5. eta 6. goi oinak); begiratokiak.
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak (gaur egun ezkutatuta).
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
      * Begiratokien tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
      * Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutako gainerako irizpideak, fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin loturikoak barne.